

XI. BARNE JARDUNALDIAK

Baionan, 1999ko otsailaren 26an

Arratsaldeko hiruretan eman zaie hasiera Euskaltzaindiaren XI. Barne Jardunaldiei, Baionan, Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Fakultatean.

Bilduak

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina eta P. Altuna, M. Azkarate, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia euskaltzainak, Koldo Zuazo euskaltzain urgazlea eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Iker Saileko eta egiturazko batzordeetako kideak izendatzea

Zuzendaritzak aurkeztutako Iker Saileko eta egiturazko batzordeetako kideen proposamena aho batez onartu du Euskaltzaindiak. Ikus eranskina.

Jagon Sailari buruzko txostenak

Eztabaidari leku eman baino lehen, iragarritako txostenak irakurri dira.

J. L. Lizundia jaunak *Jagon Sailaren organigrama Barne Jardunaldietan zehar: 1979-1999* izeneko txostena irakurri du lehenbizi.

Ondoren, J. San Martin jaunak berea irakurri du: *Jagon Sailaren ardurapeko lehen lanari buruz*.

Gero, Koldo Zuazo euskaltzain urgazleak aurkeztu du berea. Ez du testua irakurri. Ahozko laburpen bat egin du. Gaia, *Euskararen osasuna eta euskalkiak*.

Azkenik, Miren Azkarate Jagon sailburuak hartu du hitza. Txostenaren izenburua, honako hau: *Jagon Saila: gaurko egitasmoak*.

Eztabaida

Txostenok irakurri ondoren, euskaltzainei aukera eman zaie eztabaidarako. J. San Martinek garai bateko alfabetatzea ekarri du gogora. Hasieran, duela hogeita hamar urte testu marxistak eta abarrak erabiltzen hasi zen zenbait jende. Hori ez da bidea, haren ustez. Klasikoek esan behar digute nondik jo, eta bide horrek ezagunetik ezezagunera doana behar du izan. Garai hartako dokumentuak miatzea ez legoke gaizki.

Txomin Peillenek gogorarazi du duela aspaldi kongresu batean berak ere ideia hori agertu zuela, euskalkitik abiatu behar zela. Bestalde, Iparraldean hizkuntz politika aholku batzorde bat sortzeko asmoa izan zela. Inork ez daki zertan den asmo hura.

J. Haritschelharrek hartu du ondoren hitza gogorarazteko martxoaren 3an bilduko dela Jagon Saila eta honek zer dioen beharko dela ikusi.

Ibon Sarasolak egoki irizten dio Miren Azkaratek aurkeztutako eskemari. Horretaz jardun beharko lukeela batzarrak. Haren ustez, Jagon sailean bi batzorde behar dira, biak autonomoak: hizkuntzaz beraz arituko dena bata eta hizkuntzaren sustapenaz arituko dena bestea.

Miren Azkarateren ustez, Zuazoren lana abiapuntuztat har lezake dagokion lantaldeak, euskara batuari euskalkiek duten aberastasuna nola eman aztertzeko orduan. Bestalde, Jagon Saila ez da inoiz ahaztu hizkuntzaren estatusaz. Kasu bakoitzean eskatzen zen erantzuna ematen saiatu da. Gaur, ordea, zorionez, Euskaltzaindia eta Jagon Saila ez daude bakarrik, lankideak sortu zaizkio.

X. Kintana jaunak Koldo Zuazoren txostena dela eta, ohar batzuk egin nahi izan ditu. Peru Abarkaren aurrean bageunde bezala ezin da ibili. Analfabetoek arduratzen da Euskaltzaindia eta ez txikitandik euskara jakinik euskara hori lantzen saiatzen direnez. Bizkaieraz alfabetatu? Zertarako? —galde egin du Kintanak. —Zer irakurtzeko gero? Zer produkzio dago?

J. L. Lizundiak egoki ikusiko luke estatusaz arduratuko den batzordearen azpian ere lantaldeak egotea, bata eskualdeekiko arazoez eta bestea, legearekikoez arduratuko litzatekeena.

H. Knörr jaunak, estatusaren kontu honetan —hau baita gaurko hizpide nagusia— hiru hanka ikusten ditu: hezkuntza, administrazioa eta komunikabideak.

Miren Azkaratek dio gauzak teorian horrela badira ere, praktikan bestela gertatzen direla maiz. Nafarroan, adibidez, dena doa gaizki.

Estatusaz arduratzeko pertsona jakinak jarri beharko liriateke, Sarasolaren ustez. Esperientzia handia dutenez ari dela pentsatzen, adibidez, J. San Martin, Satrustegi, Charritton, Iñigo, H. Knörr. Organigrama hori izenez janzten hasi beharko luke batzarrak.

Satrustegik lehengo garaietan Euskaltzaindiak nola jokatzeko zuen ekarri du gogora: legegizonengana jotzen zutela, behar zenean. Nafarroan, estrategia ez da batzorde bat eratzea, arrabotsa atera behar da.

A. Urrutiak galde egin du ea Jagon Sailak baduen zereginik. Konpetentzia gero eta handiagoa du Euskaltzaindiak, baliabide gehiagorekin jokatzeko dutenak ditu inguruan. Eta baliabiderik gabe ezin da. Ezkor agertu da. Dena dela, ofentsiban ere sartu beharko lukeela Euskaltzaindiak, estatusari dagokionez. Euskalkiei buruzkoa eta hizkuntz kalitateari buruzkoa nahiko batera ikusten ditu Urrutiak eta hau dela eta, Mendebaldeko jendeari leku egin behar zaiola uste du delako batzorde edo lantaldean.

Miren Azkaratek erantzun dio esanaz Jagon Sailak beretzat erreklamatu beharko dituela Euskara biziberritzeko plangintzan esaten direnak. Hori bere-berea duela Euskaltzaindiak. Honen inguruan, azkenik, Altuna jaunak galde egin du ea aipatzen den konkurrentzia hori Jaurlaritzarena bakarrik den ala baita beste zenbaitena ere.

Berrito ere aurkeztutako organigrama-proposamenari heldu diote euskaltzainek eta bi ala hiru batzorde izan behar duten ere eztabaidatu ondoren, azkenean, oraingoz behintzat bitan utzi da kontua. Estatusaz arduratzeko, hiru lurralde administratibo desberdinek ordezkatuak egon beharko dute. Bestalde, izenak ere aipatu dira: Charritton, Iñigo, H. Knörr, J. San Martin, A. Urrutia. Batzorde honek berak pentsatu beharko du zer egin. Aurkez dezatela proiektu bat.

A. Urrutiak beste hirugarren talde bat edo nahi du, arazoak eztabaidatzeko, azterketak egiteko, proposamenak lantzeko eta formulatzeko. Talde honetarako izenak ere aipatu dira: Zuazo, Peillen, Davant, Kintana, J. L. Goikoetxea, J. M. Elexpuru, ... A. Urrutiak berak beste pare bat kide ekartzeko eskubidea izan nahi du (*ad cautelam*). Gero, talde honek gorputz hartzen badu, batzorde gisa eratzeko eskubidea izatea nahi luke.

Hurrengo Jagon Sailaren bileran hausnarketa egingo da eta gaurko bileran mahai gainean utzitako arazoez proposamen zehatzagoei forma ematen saiatuko dira.

Barne erregelak

Azkenik, aspaldixko onartutako erregelen testu moldatua eman zaie euskaltzainei. Bere garaian onartu zen testuari zenbait axaleko zuzenketa egin dizkio idazkariak. Axaleko zuzenketa horiez gainera, Euskaltzaindiaren jabego intelektualaz diharduen atal berri bat ere proposatzen da. Hau erabat berria da eta, horrenbestez, onartzeke dago. Beraz, azken onespina eman aurretik, euskaltzainek badute oharrak egiteko aukera. Hain zuzen, hurrengo batzarrean onartzea proposatzen da eta, egin beharreko oharrak, bestelako gaietan bezala, hilaren 20a baino lehen, idatziz egitea eskatzen da.

Eta horrenbestez, arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu da batzarra. Hausnarketa, hala ere, ez da amaitu. Izan ere, hurrengo batzarretan joango dira gorputz hartzen gaurkoan mahaigaineratu direnak.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

XI. BARNE JARDUNALDIAK (jarraipena)

Bilbon, 1999ko martxoaren 26an

Arratsaldeko laurak hogei gutxitan eman zaio hasiera bilerari. Helburua, Baionan erabakizun utzitakoak trenkatzea.

Bilduak

Goizeko bilkuran parte hartu duten euskaltzain berak: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina eta P. Altuna, M. Azkarate, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia euskaltzainak eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea. Ezin etorria adierazi dute Oihartzabal, Ondarra eta Sarasola euskaltzainek.

Iparraldeko euskararen kontseiluaz

Goizean Charritton jaunak aurkeztutako gaiarekin hasi da arratsaldeko bilera.

Haritschelhar jaunak dio bi bilkura ezagutu dituela. Garapen Kontseiluak ezarri omen du behar dela Hizkuntz Kontseilu bat Iparraldean. Baina nork egin behar du? Iparraldean Kontseilu Orokorrak hartu du bere gain eginkizun hau. Eztabaidatu da eta batzuk kontra agertu dira eta beste batzuk alde. Euskal Kultur Erakundeak bere baldintzak ezarri ditu parte hartzeko. Dena dela, Haritschelharren ustez, urrats bat egin behar da. Zerbait sortu behar da eta gero gerokoak.

Charrittonek kontzeptuari berari buruzko zalantzak ditu. Izan ere, burokrastian erortzeko arriskua ikusten du: nahiago luke, adibidez, diru gutxiago baina euskaldunek bere erabakitzea zer behar duen euskarak.

Satrustegiren iritziz, sortzera omen doan haurtxoari ezin zaio gorputz osatua eskatu. Oso pozik ikusiko luke euskarari bide bat irekitzea Iparraldean. Ez bekio oztoporik jar. Baina Euskaltzaindiak, sartzekotan, ez luke inoren peko sartu behar. Euskaltzaindiak Euskaltzaindi gisa sartu beharko du.

Lizundia jaunak hartu du hitza ondoren. Gaur ezin da gaia trenkatu. Bil daitezela Iparraldeko zazpi euskaltzainak eta proposa dezatela egokien derizatena.

Haristhelharrek dio baldintza ezarri dutela Kontseiluak bere autonomia izatea.

Auzia mahai gainean utzi da. Iparraldeko euskaltzainak datorren hilean bilduko omen dira eta arazo hau aztertuko dute.

Erregelak eta arautegia

a) P. Goenagak erregelen onarpenerako prozedura azaldu du. Batetik, dagoeneko onetsiak diren erregelen testuan badira egin beharreko zuzenketa txiki batzuk, estilo kontuak eta abar. Hauek bideratzeko, Goenaga, Knörr eta Urrutia euskaltzainak bilduko dira —hauek baitira oharrak aurkeztu dituztenak— eta testu bateratu bat eskainiko dute. Testu hau hurrengo bileran aurkeztuko dute. Jabego intelektualaz onartzen den testua ere testu orokorrean behar bezala txertatu beharko da. Hau dena batera aurkeztuko zaie euskaltzainei hurrengo bileran.

b) Ondoren, A. Urrutia jaunak “Euskaltzaindiaren lanen jabegoa eta erabilera” delako atalari buruzko zenbait argitasun eman ditu. Funtsean, dio, batzorde lana talde-lan gisa onartzeak lan horren eskubideak Euskaltzaindiarenak direla esan nahi du. Bozkatu da eta testua aho batez onartu da. Beraz, Erregeletan dagokion tokian txertatuko da atal hau.

c) Azkenik, euskaltzainburuak Arautegiaren bi artikuluren aldaketa proposatzen du. Aldaketa horien nondik norakoaz ere argitasunak eman dira eta datorren bilkuran onartuko da onartu beharrekoa. Oharrak hிலaren hamaseirako egitea eskatzen da.

Jagon Sailaren batzorde eta lantaldeak osatzea

Jagon saileko eginkizunak behar bezala betetzeko Baionan proposatu ziren batzorde-tarako kideak izendatzeaz hitz egin da ondoren. Zuzendaritzak Sustapen batzorde-rako (estatusaz arduratuko denerako) honako kide hauek proposatu ditu: Buru, A. Urrutia; kide, lau ordezkaririk (Lekuona, Charritton, Iñigo eta Goenaga), J. San Martin eta E. Baxok. Idazkaria, Gotzon Lobera. Dena dela, hau proposamen bat dela esan da. Datorren bilerarako bestelako proposamenak egin daitezke. Nolanahi ere, proposatutako izenak behintzat egon behar luketela uste du zuzendaritzak.

A. Urrutiaren ustez, batzorde honek nolabaiteko doktrina morala edo formulatzen saiatu beharko luke, ez luke mugatu behar erasoei erantzutera. Bestalde, gororazi du lehengo eskari berak zutik segitzen duela: *ad cautelam* bederen, euskalkien tokiaz eta abarrez arduratuko den zer batendako lekua gordetzea organigrama honetan.

Miren Azkaratek Jagon saileko lantaldeak hornitzeko denbora piska bat eskatzen du, ekaina arte edo.

Charrittonek Iparraldeko EGA azterketetarako laguntza eskatzen du. Horretarako arazorik ez dela erantzun zaio.

Azkenik, Miren Azkarate andreak galde egin du ea organigrama berri honek Erregelen 37. artikularen aldaketa ez ote duen eskatzen. Nolanahi ere, aldaketa erraza izango litzateke.

Eta besterik gabe, arratsaldeko seietan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga